

UR-APROBETXAMENDU BATEN TITULARTASUNA ESKUALDATZEKO ESKAERA BETETZEKO INFORMAZIO-ORRIA

HOJA INFORMATIVA PARA CUMPLIMENTAR LA SOLICITUD DE TRANSFERENCIA DE TITULARIDAD DE UN APROVECHAMIENTO DE AGUAS

1 HELBURUA

Agiri honen xedea da eskatzaileari ur-jabari publikoa osatzen duten ur kontinentalen (gainazalekoak zein lurpekoak) aprobetxamendu baten titulartasuna aldatzeko egin behar diren izapideei buruzko informazioa ematea eta aurkeztu behar dituen datuak edo agiriak zein diren adieraztea.

2 NORK EGIN BEHAR DU ESKAERA

Aprobetxamendu baten tituludun berria den pertsona edo erakundea. Titulartasun aldaketa mortis causa oinordetzaren ondorio denean, aldaketa egin eta hurrengo urtean aurkeztu behar da eskaera; gainerako kasuetan, berriz, hiru hilabeteko epea egongo da eskaera aurkezteko, aldaketa egiten denetik kontatzen hasita.

Ura dagokion titulartasun-eskualdaketa ebazpena izapidetu gabe erabiltzeak zehapena ekar dezake.

3 NON ETA NOLA ESKATZEN DA

Txostena izapidetzeko bete behar diren datuak eta aurkeztu behar diren agiriak jasotzen dituen eskaera-eredu bat dago. Eskaera betetakoan, beharrezko agiriekin batera, hemen aurkeztu ahal izango da:

- Egoitza nagusiko edo arroen bulegoetako sarrera-erregistroak:
 - URAREN EUSKAL AGENTZIA
Gamarrako atea 1A, 11. solairua
01013 Vitoria-Gasteiz.
 - URAREN EUSKAL AGENTZIA
Urkixo zumarkalea 36, 7. solairua
48011 Bilbao.
 - URAREN EUSKAL AGENTZIA
Intxaurren 70, 1. solairua
20015 Donostia/San Sebastián.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikulua jasotzen dituen lekuak.

1 OBJETIVO

El objetivo de este documento es informar a la persona peticionaria sobre la tramitación que conlleva la transferencia de titularidad de un aprovechamiento de las aguas continentales, tanto superficiales como subterráneas, que forman parte del Dominio Público Hidráulico, e indicar los datos o documentos que deben aportarse.

2 QUIÉN DEBE SOLICITAR LA TRANSFERENCIA

Cualquier persona o entidad que haya pasado a ser nuevo titular de un aprovechamiento. La instancia debe presentarse dentro del año siguiente a producirse el cambio de titularidad, cuando sea debido a sucesión mortis causa, y dentro del plazo de tres meses a partir del cambio en cualquier otro supuesto.

Hacer uso del agua sin haber tramitado la correspondiente resolución de transferencia de titularidad podrá ser objeto de sanción.

3 CÓMO Y DÓNDE SE SOLICITA

Existe un modelo de solicitud donde figuran los datos que deben cumplimentarse y la documentación que es necesario aportar para tramitar el expediente. Una vez cumplimentada la solicitud, junto con la documentación requerida, se podrá presentar en:

- Los registros de entrada de la sede central o de las oficinas de cuenca:
 - AGENCIA VASCA DEL AGUA
Portal de Gamarra 1A, planta 11
01013 Vitoria-Gasteiz.
 - AGENCIA VASCA DEL AGUA
Alameda Urquijo 36, 7ª planta
48011 Bilbao.
 - AGENCIA VASCA DEL AGUA
Intxaurren 70, 1ª planta
20015 Donostia/San Sebastián.
- Aquellos lugares que recoge el art. 16 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre de procedimientos Administrativos comunes de las Administraciones Públicas.

4 AURKEZTU DOKUMENTAZIOA

DOKUMENTAZIOA AHAL DEN NEURRIAN FORMATU DIGITALEAN AURKEZTU BEHAR DA ARTXIBU INDEPENDENTEETAN, ARTXIBOEN TAMAINUA EZIN DA IZAN 10MG BAINO HANDIAGOA

- Eskaera-orria, behar bezala beteta.
- Ordezkaritza-egiaztagiria:
Baimen-eskaeraren izenpetzailea ez bada interesduna:
 - a. Izapideak ordezkari baten bidez egiten dituzten pertsona fisikoen kasuan, notario-ahalarde baten bidez edo fede-emaile baten aurrean sinatutako ordezkari-akta baten bidez frogatu beharko du ordezkari-akordezkaririk.
 - b. Pertsona juridikoa bada, notario-ahalardea beharrezkoa izango da, bai eta ordezkari den pertsonak eskaera sinatzea eta erakundea eratzeko eskritura ere.
- F.A-0003 Ezaugarri eta erabilari buruzko zinpeko aitortpena, Ur-jabari Publikoaren Erregelamenduaren 146. artikuluan xedatutakoari jarraituz egina. Aitorpen horretan aprobetxamendua ustiapenerako baldintzetan dagoen edo ez adierazi beharko du interesdunak. Horrez gain, momentu horretan Uren Erregistroan ageri diren aprobetxamenduaren ezaugarriak bat datozen edo ez adierazi beharko du.
- Emakidaren segidako traktua eman edo berriro hasi dela egiaztatzen duen dokumentu publikoa edo fede-emaile; agiri hori aurkezterik egon ezean, emakidarako eskubidearen segidako traktua aurkeztea ezinezkoa dela esaten duen zinpeko deklarazioa aurkeztuko da, eta horrekin batera, urez baliatuko den ondasun higiezinaren jabetza-titulua edo -tituluak edo egiazko eskubidea.

5 IZAPIDEAK

Eskaera eta adierazitako agiriak jasotakoan, honako izapideak egingo dira:

1. Datuak egiaztatzea, agiriak aztertzea eta beharrezkoa bada, agiriak eskatzea.
2. Datuen egiaztapena jatorrizko espedientearekiko eta beharrezkoa bada, aurreko titularrari jakinaraztea
3. Txosten teknikoak.
4. Pertsona edo erakunde interesdunek esan beharrezkoa entzutea, alegazioak aurkeztu badira.
5. Ebazpena.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko Uren Erregistroan izena

BEHARREKO

4 DOCUMENTACIÓN QUE DEBE APORTARSE

LA DOCUMENTACIÓN DEBE PRESENTARSE PREFERIBLEMENTE EN FORMATO DIGITAL EN ARCHIVOS INDEPENDIENTES DE TAMAÑO NO SUPERIOR A 10MG

- Modelo de solicitud debidamente cumplimentada.
- Documento que acredite la representación:
Si la persona firmante de la solicitud de autorización no es la persona interesada:
 - a. En el caso de persona física que tramita a través de representante deberá acreditar la representación a través de un poder notarial o a través de un acta de representación firmada ante fedatario público.
 - b. Si la persona es jurídica será necesario poder notarial y que la solicitud vaya firmada por la persona que ostente representación, así como la escritura de constitución de la entidad.
- F.A-0003 Declaración jurada sobre características y uso, formulada de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 146 del Reglamento del Dominio Público Hidráulico, en la que el interesado manifiesta si el aprovechamiento se encuentra en condiciones de explotación y la coincidencia o variaciones existentes entre las características del mismo que figuran en el Registro de Aguas las que existen en este momento.
- Documento público o fehaciente que acredite el tracto sucesivo de la concesión o, en el caso de que esto no sea posible, declaración jurada sobre la imposibilidad de acreditar el tracto sucesivo del derecho a la concesión, acompañada del título o títulos fehacientes de la propiedad o derecho real del bien inmueble al que se destinan las aguas o, en su defecto, de las instalaciones necesarias para el aprovechamiento.

5 TRAMITACIÓN

Recibidas la solicitud y documentación requeridas, se realizan los siguientes trámites:

1. Comprobación de los datos, examen de la documentación y requerimiento documental si fuera necesario.
2. Comprobación de los datos con el expediente original y notificación al titular anterior si se estima oportuno.
3. Informe técnico.
4. Audiencia a las personas o entidades interesadas en su caso, si ha habido alegaciones.
5. Resolución.
6. Inscripción de oficio en el Registro de Aguas del País

ematea.

7. Behin-behineko izen-emateen kasuan, azterketa egiteko bisita bat egingo da, eskatzailearekin hitzordua jarri ostean. Bisita hori aktan jasoko da, ebatzi ahal izateko eta izen-ematea behin betikoa izateko, hala badagokio.

Espedientea izapidetzen bukatutakoan, Uraren Euskal Agentziak ebazpena betetzen dela eta ur-jabari publikoa kontserbatzen dela ziurtatzeko zaintza-, ikuskapen eta egiaztatze-lanak egingo ditu.

6 EBAZPENAREN ONDORIOAK

Ebazpenak amaituko du abiarazitako administrazio-prozedura.

Eskualdaketaren ebazpena da ur-aprobetxamenduaren tituluduna hura erabiltzeko legitimatzen duen agiria. Haren bidez, aurreko tituludunak zituen eskubideak eta betebeharrak eskualdatzen zaizkio tituludun berriari.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailean. HILABETEKO epea egongo da horretarako, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

7 EBAZTEKO EPEAK

Uraren Euskal Agentziak hemezortzi hilabeteko epea izango du gehienez, ur-jabari publikoaren emakidaren prozedura ebazteko. Epe hori igarotakoan, eskaera gaitzetsi dela ulertuko da.

Uraren Euskal Agentziak berariazko ebazpenik ematen ez badu, ez du inondik inora ere esan nahiko aprobetxamendua lortu denik.

Vasco.

7. En el caso de las inscripciones provisionales, se realizará una visita de reconocimiento, previa citación del solicitante/peticionario, del que se levantará acta, para su posterior resolución elevando a definitiva la inscripción, si procede.

Una vez terminada la tramitación del expediente, la Agencia Vasca del Agua realizará las labores de vigilancia, inspección y comprobación que estime oportunas para garantizar el cumplimiento de la resolución, así como la conservación del DPH.

6 EFECTOS DE LA RESOLUCIÓN

La resolución pondrá fin al procedimiento administrativo iniciado.

La resolución de transferencia es el documento que legitima a su titular hacer uso del aprovechamiento de las aguas, quedando subrogado el nuevo titular en los derechos y obligaciones del anterior.

Contra la resolución, podrá interponerse recurso de alzada ante el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el plazo de UN MES, a contar desde el día siguiente a la notificación de la Resolución.

7 PLAZOS PARA RESOLVER

El plazo de la Agencia Vasca del Agua para resolver el procedimiento de cambio de titularidad de un aprovechamiento hidráulico no podrá exceder de dieciocho meses. Transcurrido dicho plazo podrá entenderse desestimada la petición.

En ningún caso podrá estimarse presuntamente, en ausencia de resolución expresa, la obtención del aprovechamiento.